

Hizlaria

Jon Arrieta Mardaras
Novia Salcedo Fundazioaren Lehendakaria

ASOZIAZIONISMOA

Elkartegintzari buruzko txostena aurkezteko arduraduna Jon Arrieta Mardaras izan zen. Arrietak badu esperientzia handia arlo honetan, izan ere, Mondragón Taldeko kooperatiben aholkulari nahiz zuzendari izateaz gain, Scout katolikoek mugimendua, Labayru institutua, Novia Salcedo Fundazioa edota UNESCO Etxea, besteak beste, bezalako erakunde ospetsuen sortzaile izan da.



Gonbidatuaren ustez Komunikabideek ez diete elkarteei merezi duten garrantzia ematen. Bestalde, Arrietak, Laudioko Oroimen Kolektiboaren lana aipatu zuen non asoziazionismoak pisu handia daukan.

Asoziazionismoari dagokionez, gonbidatuak kontzeptu bat azpimarratu zuen: Kapital soziala. Termino honek gizarteko elkarteen multzoa oro har izendatzen du. Kapital sozialak garrantzi handia dauka gaur egungo gizartean, argitaratu berri diren datuek adierazten duten legez, enpleguaren 5% eta barne-produktu gordinaren 5% izango litzateke. Beraz, nolabaiteko etorkizun ekonomikoa daukala ukaezina da.

Kapital sozialaren sorrera zenbait jatorrietako jendea erakarriz egin behar da; unibertsitarioak, jende trebatua edota boluntarioak. Edonola, gizatarloa etorkizun handiko arloa da, gaur egungo jendeak geroz eta astialdi gehiagoz gozatzen du, beraz geroz eta denbora gehiago dauka gizarte aktibitateetarako.

Edonola, hizketaldi emateko arduradunarentzat, gizarte erakundeek kalitate gehiago behar dute, bai burutzen dituzten jardueretan, bai euren kideei dagokienez. Zentzu honetan, erakunde hauetan, boluntarioez gain, geroz eta profesional gehiago alokatzen dituzte. Gaur egun, erakunde hauen langileen 50% kontratupean lan egiten dute.

Erakunde sozialek kontutan hartu behar duten beste alderdi bat inguratzen dituenarekin izan beharreko erlazioak dira. Erakundeek enpresa eta administrazioarekin lan egin beharko lukete. Alde batetik, enpresek euren langileekin eta baita gizartearekin harremanak estutzeko eta bestetik, administrazioak bere gizarte-politika hedatzeko.

Bestalde, esan beharra dago, erakunde hauek beste entitateekin harremanetan jarri behar direla, hau da, ikuskera globala izan behar dute, gaur egungo gizartean ikuspegi hau edozertarako neurria baita. Ezin da ikertu ikuskera globala izan ezean.

Azkenik, Jonek, zera baieztatuz hitzaldia bukatutzat eman zuen: gizarte erakundeen lana, gizarterako lana da eta bere helburu nagusia etorkizuna diseinatzea da.



“Kapital sozial handia ez daukan gizarteari, hanka garrantzitsua falta zaio bere ekonomi, gizarte eta giza garapenerako”